

### 3. KASU PRAKTIKOA - ENPRESARIAREN ERANTZUKIZUNA

**Aztertu itzazu hurrengo arazoak eta erantzun bat eman jasotzen dituzten gatazkei.**

#### **Gau airetsua**

Aldanondo S.L. enpresa eraikin bat eraldatzen ari da Donostiako zentroan. Helburuak egitura saneatzea, estandar energetiko berriei egokitzea eta bizitza kopurua handitzea dira. Obran garabi handi bat jarri dute Juan Garciak, langile heldu eta aditu batek, erabiltzen duena. Juan gaixotu egiten da eta, nola lanean atzerapenak izan dituzten beste hainbat arrazoirengatik, Pedro Arruti, enkargatuak, Luis Gonzalez igeltseroari eskatzen dio garabia erabiltzea. Honek horrela egiten du.

2014ko urriak 1ean komunikabide guztiak ekaitz gogor bat iragarri dute, kostaldera gauerdia aldera iritsiko dena 110 kmko aire boladekin. Gonzalezek ahaztu du gau horretan garabia haize-orratz moduan uztea biratu ahal izateko eta erortzeko arriskua saihesteko. Ekaitza iristen da iragarri bezala eta garabia erori egiten da. Goizeko ordu biak dira eta momentu horretan Maria Sola bere lanetik irten da etxera doa. Ezin du erreakzionatu eta garabia gainera datorkio. Ondorioz garun-lesio bat eta hainbat kolpe larri jasaten ditu. Bi hilabetetan etxean egon behar du. Ondoren errehabilitazioa egin behar du 3.000 € ordainduz.

Bestalde, automobilak 10.500 €ko kalteak izan ditu, bere aseguruak estaltzen ez dituenak.

Mariak jakin nahi du zeini kalte-ordainak eskatu, inplikatu guztiak erantzukizuna ukatu bai diote. Oinarritu ezazu zure erantzuna doktrina eta jurisprudentzian.

#### **Eskaintza ez hain ona**

Xabierrek bere etxea margotu nahi du. Akira doa behar duen pintura erostera eta bertan Bruguer markako hainbat kolore ofertan daudela ikusten du. Bereziki gustatzen zaio pastel koloreko bat 10€ ontziko balio duena. Ontzian jasotzen da kanporako margoa dela, eta ez etxe barruan erabiltzeko. Dendako langile batekin kontsultatzen du eta honek esaten dio ahal dela baita barruan erabili beti ere margotutako gela egun batzuetan ondo aireratzen bada. Horrela saihesten dira bestela posible diren buruko minak eta larruko narritadurak. Xabierrek esandakoa ontzat emanaz bost ontzi erosten ditu (kolore horrek barrurako bertsioan 20 € balio zuen).

Xabierrek etxea margotzen du eta ondo aireratzen du aste bete batean. Baina bere hiru urteko semeak erreakzio alergiko garrantzitsu bat du eta larruko erupzio itsusi batekin medikura doa. Dermatologo batekin kontsultatzen du lehenbailehen arazoa konpontzeko eta tratamendu bat jasotzen du 350 €ko kostua duena.

Zer eskatu dezake Xabierrek? Nori? Non oinarrituz?

### **Automobila**

Xabierrek 2014ko ekainean Citroën markako auto bat erosi du Donostiako kontzesionario batean. Egun batean garajearen ate parean uzten du eskuko freno emanda eta autotik ateratzen da egindako erosketak ateratzeko. Garajera arrapala nahiko zorrotz batetik sartzen da. Autoa mugitu egiten da Xabierrek autoaren atea ixterakoan eta garajearen atearen kontra jotzen du. Automobilak dituen kalteak 2.500 €tan baloratu dira tailerrean eta garajearen ateak 1.200 €tan. Hilabete pasa da autoa erosi zuenetik.

Bere aseguruak esaten dio ez dituela gastuak ordainduko bere adituaren ustez akatsa autoan zegoelako. Dirudienez plastiko puska txiki bat itsatsita geratu da frenoaren engranajearen eta horren eraginez autoa ixterakoan sortutako bibrazioak eskuko freno askatu erazi du.

Xabierrek kontzesionarioa demandatu nahi du, baina jakiterakoan konkurtso egoeran dagoela ea Citroëni erantzukizuna eskatzeko aukera baduen galdetzen dizu.

Argudiatu ezazu zure erantzuna.

### **Urtemuga festa**

Begoña eta Mikel Marijaia jatetxera joaten dira familia osoarekin eta lagun batzuekin beraien ezkontzaren 50. urtemuga ospatzera. Gau horretan bertan hainbat gonbidatu ospitalean ingresatuak izan dira intoxikazio baten ondorioz. Burututako ikerketaren ondoren jakiten da afari hasieran jandako ostrak izan direla intoxikazioaren arrazoia. Badirudi hauen hornitzaileak ez zuela hotz-katea errespetatu eta beraien kontserbazioa ez zela horregatik egokia izan.

Kaltetuek jatetxeari galdatzen dizkiote ospitaleko gastuak eta jasandako kalteengatik indemnitzazioa bat. Horretaz aparte eskatzen dituzte baita ospitalean egoteagatik galdutako diru sarrerak (batzuk langileak dira beste batzuk autonomoak). Begoña eta Mikelen alabak erreserbak eginak zituen beraienkin New Yorkera joateko, eta gastu horiek eskatzen ditu, baita beste indemnitzazio bat ere beraien aspaldiko amets hori ez bete izanagatik.

Uste duzu arrakasta izango dutela pertsona desberdinak beraien eskaerekin?

Argudiatu ezazu zure erantzuna.